

7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa baten funtsezko aktiboak dira, bezeroei balio erantsia emateko. Baliabideak honela sailka daitezke: giza baliabideak, finantza-baliabideak, baliabide fisikoak eta intelektualak.

Gure eskularru sentsozialen proiektua aurrera eramateko ezinbestekoa da erabiltzen ditugun baliabide nagusiak ondo zehaztea, horiek baitira gure balio-proposamena garatzeko oinarria.

Lehenik eta behin, baliabide fisikoak behar ditugu: prototipoak egiteko lanerako espazioa, ordenagailuak, tresneria teknikoa eta eskularruak fabrikatzeko material guztiak, hala nola sentsoareak, txipak eta ehun egokiak.

Bestalde, baliabide intelektualek ere garrantzi handia dute. Gure markaren babes, softwarearen garapena eta datuen transmisioa kudeatzeko dugun ezagutza teknikoa dira gure aktiborik baliotsuenetako batzuk.

Horri giza baliabideak gehitu behar zaizkio: elektronikan eta softwarean trebeak diren teknikariak, osasun arloko ezagutza duten langileak eta produktua merkatura eramango duten profesionalak.

Azkenik, finantza- baliabideek aukera emango digute lehen inbertsioa egiteko eta garapen prozesua sostengatzeko. Kapital propioa, lahuntzak edo kreditu- lerroak izango dira gure lehen urteetako oinarria.

Laburbilduz, arrakasta lortzeko fisikoak zein ukiezinak diren baliabideak behar ditugu, eta horiek modu argian identifikatzea funtsezkoa da proiektuaren bideragarritasuna erakusteko.

BIBLIOGRAFIA:

- García,B.-Tena, D.-Bernabeu, M^a E.- López, C. (2025). Itinerario personal para la empleabilidad. TULIBRODEFP.
- STARTINNOVA plataformako material.
- <http://blog.hubspot.es/sales/modelo-canvas>
- Logoa: <http://www.chatgpt.com>



VITAL GLOVES
Enfoque al cliente, calidad, innovación

